

De Vries-ek eta beste ikertzaile batzuk berez sortzen diren *mutazioak aurkituko dituzte, hau da, hozi-zelula baten DNAan gertatzen diren bapateko herentzi aldaketak. Eta mutazio hauek, genezko herentziarik sortzen duten aldaketa hauek, izango dira neodarwinismoak hautaketa naturalaren gai bezala hartuko dituenak. Hautaketa naturalak ezin du, berez, aldaketen esparrua neurritz gain hedatu; mutazioek ere ezin dute zentzu-aldaketa sendoa lortu, baina, bien eragina elkartuz, bakoitzak bere aldetik lortuko ez lukeena eskuratuko litzateke neodarwinismoaren ustez. Oinarri hauetaz landa, neodarwinismoa populazioen genetikan ere oinarrituko da.

Hala ere, neodarwinismoa, lehen darwinismoa bezala, mikroeboluzioa argitzeko gai balitz ere, ez litzateke aroprosa izango makroeboluzioa argitzeko, ezta egokitasun oso korapilotsuak zuzentzeko ere.

Neoeskolastika

Eliza katolikoaren filosofia tradizionalaren berriztapena da, XVIII-XIX. mendeetako ilunaldiaren ondoren garatzen dena. Han-hehenka ennetzen ari zen berriztapen hori 1879an Leon XIII.ak ofizialki onartu, bultzatu eta gidatu zuen Aeterni Patris entziklikaren bitartez. Eredu bezala San Tomas Aquino-koaren pentsaera proposatzen zuen.

Ik. Tomismoa.

Neokantismoa

XIX. mendearen azken aldera, batez ere Alemania-n, Kant-en filosofia bultzatu nahirik sortzen den korrantea osatzen dute neokantiarrek. Otto Siebmann izan da Kant-engan itzuli behar hau ozeki aldarrikatu duena eta, berarekin batera, Kuno Fischer, F.A. Lange, Hermann Von Helmholtz eta J.K.F. Zölnern.

Adar eta joera desberdinekin, gutxi gorabehera I. Mundu-Gerratea arte irauten duen mugimendu honen ahaleginik handiena positibismoa eta materialismoa eta, halaber, filosofia erromantikorearen konstruktibismoa gainditzea izan da. Horretarako, batez ere ezagutzaren teoriaren garrantzia azpimarratzen da, une berean zientziekiko ikuspegi kritiko bat matentzen dutelarik. Hala ere, neokantismoa ez da joera monolitiko bat, eta aniztasun horren adierazgarri dira *Marburg-eko nahiz *Baden-go Eskolak, edo neokantismoak fenomenologiara edo izpirituaren filosofiari begira emandako pausok.

Neokonfuzianismoa

Honela deitzen da Erdi Arotik hasi eta gaur arte *konfuzianismoak hartu duen tanke-

ra. *Budismoa nagusitua zen mende luzeetan txinatar filosofian; horren kontrako erreakzioa izan zen neokonfuzianismoa. Nahiz eta budismoaren eta *daoismoaren eragin nabarmena eduki, funtsezko puntutan budismotik urrundu egiten da eta horren kritika zorrotza ipintzen du: e.b., neokonfuzianismoarentzat mundu honetako bizitzak garrantzi handia du, eta hori betetzeko eta aldatzeko ekintza sozialak eta politikoak beharrezkoak dira.

Konfuzianismoaren irakaspen etikoari oinarri kosmologikoa eta metafisikoa jartzera dator neokonfuzianismoa, horrela bakarrik izango bait da gauza budismoari aurre egiteko.

Horregatik Konfuzio-gana beragana baino gehiago *Mengzi-gana (Mentzio), haren jarraitzailearengana, jo dute neokonfuzianistek. Lau liburuk osatzen dute idazteun sakratua: Analekta, Mengzi, Irakaspi nagusia eta Formen irakaspena liburuek, alegia. Baina horiek besteko eragina edo handiagoa ukan zuen Aldaketen Liburua-k, neokonfuzianismoa eratzean.

Hiru eskola bereizi ohi dira neokonfuzianismoaren historian:

- Arrazoiarena (Song dinastiaren garaian). Zhu Xi (Chu Hsi) izan zen eskola honen ezaguterazle nagusia. Mundu objektiboaren ikerkuntza da ezagutzaren funtsa eta alorra, eskola honen arabera.

- Gogamenarena (Ming dinastiaren garaikoa). Idealismotzat har daiteke. Eskola honen sortzailea eta ezaguterazle nagusia Wang Yangming izan zen. Eskola honetakoek gogartea jartzen dute giza ezagutzaren oinarrian, *Zen budismoaren antzera.

- Lege moralarena (Qing (Tsing) dinastian garaturikoa). Ezaguterazle nabarmenena Dai Zhen (Tai Chen) izan zen. *Li transzendentea eta horren adiera inmanentea eta idealista ukatuz, t'si printzipio "materiala" jartzen du bere metafisikaren eta etikaren oinarrian.

Budismoaren eta daoismoaren kontrako jarretatik hasi bazen ere, hirugarren eskolaren garaian bakarrik gainditu ahal izan ziotuen neokonfuzianismoak beste horiek.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Txinatar filosofia.

Neokritizismoa

Kant-en filosofia filosofia kritiko edo kritizismo gisa gogoemana denez gero, "neokritizismo" hitzak Kant-en filosofia hori birbizten eta eraberritzen ahalegindu den